

**Iñaki Múgica Flores Lasarte-Oriako Udaleko Alkatetzaren kabineteburuak egindako txostena.**

<b>GAIA:</b>	Baratze Ekologikoak Adjudikatzeari eta Kudeatzeari buruzko Ordenantza lantzeko kontsulta-prozesuari buruzko txostena
<b>TXOSTENAREN DATA:</b>	2019ko otsailaren 18a
<b>TXOSTEN zk.:</b>	10/2019

Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Legeak herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzko 133 artikuluan ezartzen duenez, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua egin baino lehen kontsulta publiko bat egin beharko da.

Lasarte-Oriako Udalaren Hirigintza, Obrak eta Ingurumena departamentuak eskatuta, eta Baratze Ekologikoak Adjudikatzeari eta Kudeatzeari buruzko Ordenantzaren onespina abian jartzeko beharra ikusita, alde aurreko kontsulten prozesu bat ireki du. Horretarako, udalaren webgunean parte hartzeko prozesu bat ireki zen, otsailaren 15era arteko epea emanaz herritarrek beren proposamenak udalari helarazteko, honela egin zezaketelarik:

- Idatziz, Udaleko Erregistroan idatzi bat aurkeztuz.
- Bide telematikoz, Herritarren Parte-hartzearen atalaren bitartez.
- E-maila bidaliz helbide elektronikoa honetara: [partehartzea@lasarte-oria.eus](mailto:partehartzea@lasarte-oria.eus).

Irekitze hori prentsari komunikatu zitzaion, urtarrilaren 25ean bidalitako ohar baten bidez, Lasarte-Oriako herritar guztiengana hobeto zabaltzeko xedez.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta egiaztatu ahal izan dugunez, **bi ekarpen jaso dira (bata Udaleko Erregistroan eta bestea bide telematikoz)** horretarako irekitako bideetatik, eta hori Hirigintza, Obrak eta Ingurumena departamentuari jakinarazten zaio, erregelamendua lantzeko eta onesteko prozesua jarrai dezan.

Iñaki Múgica Flores  
Alkatetzako kabinetea